

Aiako harria natura-parkea

ARDITURRI PARKETXEA

ERREENTERIA

2022



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

AÑARBEKO BASOA

Abiapuntua eta helmuga: **Idoia-Susperregi, Erreenteria**

Jarduera-mota: **ibilaldi gidatua**

Hartzaileak: **ikasgela bat (LH 2.-3. zikloa, DBH)**

Iraupena: **5 ordu**

Prezioa: **9 € ikasleko**

DESKRIBAPENA

Ibilaldi honetan, gertu daukagun ingurune naturala ezagutaraztea, duen balioa ulertaraztea eta zaintzen ikastea ditugu helburuetako batzuk. Ekosistemen funtzionamendua aztertuko dugu eta bioaniztasunaren balioa ezagutuko dugu ere. Malbazargo lepora igoko gara eta Malbazargo urmaela ezagutuko dugu, bere balio ekologikoa aztertuz. Pagomotzen baso batetik igaro eta Pagosardeko urmaelera iritsiko gara. Hortik aurrera, Urdaburu mendiari itzulua emango zaio. Askotariko zuhaitz espezieak ezagutuko ditugu, bai landatuak bai berez sortuak. Antzinako lanbideak gogoratuko ditugu, bidean aurkituko dugun txondor-plazaren aurrean. Orokorrean, ingurunea eta paisaia interpretatzen ikasiko dugu.

Garapen Iraunkorreko 15. Helburuan zehazten diren helmugekin bat dator eta haien edukiak azalduko dira.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Mendeetan, basoak berebiziko garrantzia izan du Euskal Herriko biztanleentzat. Ezinbestekoak zituzten gaiak eskaini dizkie: jakia, erregaia, labore-lurrak, eraikuntzarako materialak eta abar. Gizakiak basoarekin egin duen esku-hartzeak, bere ingurunearekin elkarbizitzen erakutsi dio, kultura bat sortuz.